

Asisko gutuna

2010eko martxo. 1.go printzipioa. Eguneroko Jainkoarekin

harreman pertsonalean jartzen saiatu. 17. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Behin eta berriz Asis Sareko printzipioetara itzultzen gara, horrela bizitza zertarako den sakonki aurkitzeko bidea, egiaz, nolakoa izan daitekeen ikusiz joateko. Norberaren bilaketan, isiltasuna eta barne-bizitza

bezalako bi esperientziek eman diezagukete arrastoa, esplizituki esperientzia erlijiosoa denerantz: “Bestea denarengana” irekitzea eta harekin harremanean jartzea, hau da, otoitza.

Gogoetarako gaia

Otoitza dela-eta

Zer da otoitz egitea? Sarritan ez dakigu ondo zertaz ari garen otoitza esatean. Pragmatismo eta sinesgabetasunez beteriko garai hauetan, ez daukagu argi zer egin otoitzarekin. Jakin ez dakigu zer egin ere, isilik gelditzen garenean. Eta hala ere, isilean geure barnean sartuz gero, eskizian hasten gara geure baitan, eta galdera handiak azaltzen zaizkigu; geure egia sakonaren aurrean jartzen garenean, inoiz miresmena sortzen zaigu, edo esker on bizia, edo bihotzetik datorren zerbait oso sinplea. Horrelako momentuetan, inoiz presentzia bat sentitzen dugu, norbaitekin jarduteko aukera; badirudi, har dezakegula atsedean norbaitengan.

Baina berehalaxe, trumilka datozkigu zalantzak, eta inork entzuten ote gaituen duda etortzen zaigu. Nola egon daiteke entzungo nauen Jainkorik? Eta hor gelditzen gara, atzera eginez eta geure buruan itxiz.

Fede apur batez, bihotzean konfiantza pixka bat izanez, zaratatik libratzeko astia hartuz, aurki gaitzke geure barnean otoitz dagien Espirituaren

ahotsarekin, eta profetak bezala esan: “Nire arima gauean zure bila zebilen, Jauna; nire barne-barnean nire espiritua zure bila zebilen”.

Geure isiltasunean, sortuz doa Jainkoaren misterioan atsedean eta konfiantza jartzea, eta haren aurrean egoten saiatzen gara: “Ene Jainko, ez dakit existentziarik baduzun ala ez, entzuten didazun ala ez; baina sentitzen dut, har dezakedala atsedean zugar, eta nire bizitzak zugar sosegua aurkitzen duela. Otoitzak, pausoz pauso, Jainkoa ezagutzera eramaten gaitu; edo bestela jarrai diezaiokegu Jesusi berari: harentzat otoitza bere bizitzako iturri normala zen, harentzat bere Aita zen dena. Bere Hitzean ere, Jesus gurekin topo egitera dator: Ebanjelioa irakurtzea, Jesusek bere bizitzan eginak gogoratzea, bihur daiteke otoitz.

Otoitzean, bihotza sutzen duen maitasun-iturria aurkituz joango gara. Eta egunen batean, adorazio-une bat datorkigularik, Jesusen aurrean aurkituko gara, Tomasi gertatu zitzaion bezala; eta orduan, bihotza emanez esango diogu: “Ene Jaun eta Jainkoa”.

Ebanjelioko pasartea: Mt 6, 5-8

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala: gogoko dute sinagoga eta plazetan zutik otoitz egitea, jendearen agerian. Benetan diotsuet: Hartua dute beren ordaina. Zu, ordea, otoitz egiteko, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egin otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari, eta ezkutukoa ere

ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Otoitz egitean, ez ari esan eta esan, jentilek ohi duten bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan horien antzeko, bai baitaki zuen Aitak zeren beharra duzun, zuek eskatu baino lehen.

Espiritualtasun frantziskotarra

Gustatuko zitzaigukeen, baina Asisko Frantziskok ez digu utzi otoitzari buruzko trataturik, eta ez digu otoitz egiten ikasteko errezetarik eta metodorik eman. Frantzisko, besterik gabe, "otoitz bihurturiko gizona" izan zen. Izan ere, esandakoaz aparte, ez baitako otoitz egiteko errezetarik, hala nola ez dagoen harremanean jarduteko errezetarik. Otoitza Jaunarekin harremanean jartzea da. Eta harremana, definizioz, pertsonala eta besterendu ezina da. Bakoitza bere izatetik, bere momentutik, bere historia pertsonaletik jartzen da harremanean. Zure bizitza zurea da eta zurea bakarrik, eta zuk egin dezakezun bezala bakarrik zaude deitua Jainkoarekiko harremanera zabaltzera.

Frantziskok "bihotz gabia" eskatzen du, besterik gabe, otoitz egiteko. Eta bere pobreziaz jabeturik, Jainkoarengana zuzentzen denak du "bihotz garbia", hura "Jauntzat" hartu eta pozez betetzen denak. Bere buruari begira egon gabe, osorik Jainkoarengana, hura ezagutuz, maitatuz eta goretsez, itzulia dagoenak du bihotz garbia.

Otoitz egitea, pobreak duen bihotzaz Jainkoarengana hurbiltzea da, eta "Jaunaren Espirituari" apalki uztea, gure bilaketa aurkituntza bihurtzen eta gure gaua egun egiten.

23. Salmotik

Zu, Jauna, zaitut artzain: ez zait ezer falta.
Larre guritan etzanarazten nauzu,
ur baretara eramaten,
eta indarrak berritzen;
bide egokitik narama, leiala zarelako.

Ibar beltz-ilunetan banabil ere,
ez dut inolako gaitzen beldurrik,
zu nirekin baitzaude.
Zuk atontzen didazu mahaia;
ukenduz gantzutzen didazu burua;
gainezka dut kopa.
Bai, zorionak eta leialtasunak
inguratuko naute bizitzako egun guztietan.

Gutuneko azken hitzak

Barnea landu ezean, bizitza unean uneko eta axaleko estimulutan belaxkatzen da, eta horrela itxi egiten zaio bidea nondik norakoa duen bizitzari.

2010eko apirileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate apirileko erreferentzia guztiak:

1 Jn 13,1-15	8 Lk 24,35-48	15 Jn 3,31-36	22 Jn 6,44-51	29 Jn 13,16-20
2 Jn 18,1-19,42	9 Jn 21,1-14	16 Jn 6,1-15	23 Jn 6,52-59	30 Jn 14,1-6
3 Lk 24, 1-12	10 Mk 16,9-15	17 Jn 6,16-21	24 Jn 6,60-69	
4 Jn 20, 1-9	11 Jn 20, 19-31	18 Jn 21, 1-19	25 Jn 10, 27-30	
5 Mt 28,8-15	12 Jn 3,1-8	19 Jn 6,22-29	26 Jn 10,1-10	
6 Jn 20,11-18	13 Jn 3,5a.7b-15	20 Jn 6,30-35	27 Jn 10,22-30	
7 Lk 24,13-35	14 Jn 3,16-21	21 Jn 6,35-40	28 Jn 12,44-50	

Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

Asis Sarearen web-orrian Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: "Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak".

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2010eko martxoaren 1. go printzipioa. Egutero, Jainkoarekiko

harreman pertsonala landu

17. zenbakia

Hil honetan, Jainkoarekin harremanean jartzeko ezinbesteko mediazio bat hausnartzera goaz: otoitza. Hau ez da, praktika erlijiosoko gai bat gehiago edo sinestunaren betebeharrak, Jainkoak egiten digun erregalia baizik: Harekin pertsonalki harremanean jarri ahal izatea. Horretarako isiltasuna zaindu eta barne-bizitza lantzeak lagundu egingo digu Harekin geure izatearen muinean topo egiten, muin horretatik elkar aurkitzeak bidean aurrera egin ahalko duelarik.

Isiltasunetik eta barne-bizitzatik

Isiltasunak geure baitara eramaten gaitu, eta hortik neure burua besteengana eta Jainkoarengana ireki dezaket. Bakarrik eginiko ibilaldi bat, musika gozoa entzutea, irakurgai bat ... izan ditzakegu lagungarri, isiltasun horretan sartzeko eta barne-bizitza aurkituz joateko.

Barne-barnetik sortzen diren galderak ere – ez inportanteak direla “dakizkigunak” – bidean jarriko gaituzte. Zeintzuk dira zuretzat galdera horiek? Onar itzazu eta utzi iezaiezu zure bilaketa gidatzen.

“... eta egin otoitz Aitari ezkutuan”

Eta Jesusek nahiko erraza jartzen digu gauza: ez da muntaia handirik behar, ez dago elizara joan beharrik edo ikasketak eduki beharrik. Nahikoa da nahi izatea eta konplikaziorik gabe, ateratzen zaizun bezala, egitea, zera jakinez: Hark zuk baino gehiago egon nahi duela zurekin, zauden bezala onartzen zaituela eta entzun egin nahi dizula. Sumatzen duzu horrela egite ahalegintzeko barna-konbitea?

Nolako sentsazioak esnatzen dira zuregan, Jainkoak zurekin harremanean jarri nahi duela posible izatearen aurrean?

Ez dago errezetarik

Otoitz egiteko bidea norberarena da. Badaude lagun dezaketzen metodoak, baina azkenean Jainkoarekin aurrez aurre, norbera den bezala, jartzea da gauza.

Agian une ona da hau, horrela egiten hasteko: egin zaitzez kontziente zeure arnasaz, minutu batzuetan zehar ... isiltasunean jartzen lagunduko dizu ... Har kontuan zeure zailtasunak, mugak, zeuregan onartzea zail egiten zaizuna

... Dena dela, esku onetan zaude ... Eska iezaiezu, zeure bilaketa bihur dezala topaketa.

“Ez zait ezer falta”

Otoitzak, Jainkoa honela esperimendatzera eramango zaitu poliki-poliki.

Salmo honen bidez Jainkoarengana zuzentzen zarenean, zu zara bertan protagonista, ez salmogilea; zuretzako dira salmoan agertzen diren Jainkoaren egintzak.

Irakur ezazu poliki, hitzak zeureak balira bezala ... Zer esnatzen du zeuregan?

Bizitzan ez ditugu urri zailtasunak, sufrimendu aldiak ..., baina Jainkoa lagun dugula sumatu behinik behin egiten dugunean, ezer ez da berdin, *ez dago ezeren beldur izan beharrik, ez zaigu ezer falta* ...

Baduzu horrelako esperientziaren bat? Eta bestela, zer sentitzen duzu horrela izan daitekeela pentsatzeaz bakarrik.

Irakurri praktikoak: otoitz pertsonala

Jainkoaren gaiak zuregan oihartzunik baldin badu, ona izango da zure eguneroko bizitzan otoitzari tokia ematea. Hasteko nahikoa dira 15 edo 20 minutu. Erabil ditzakezu bibliako pasarte hautatuak, eguneroko ebanjelioa edo bestela irakurri ebanjelioa jarraian.

Ona hemen erabil dezakezun metodo erraz bat: irakurri mantsoki, bihotzetik, aukeraturiko pasartea; jarri adi zeuregan esnatzen denari; sortu zaizunari utz iezaiezu, Jainkoarekiko harreman pertsonal jartzen, adierazi hitz xaloz sortzen zaizuna.

Praktikarako gida-liburu gisa erabil dezakezu: “*Camino de transformación personal. Sabiduría cristiana*”, Javier Garrido. Ed. San Pablo.